

Kale Goiena



Atal honetan lehenago be atara izan dogu inguru honeitako fotografixa zaharren bat. Baiña laister paraje horreittan etxe barrixak egittera doiazela aitzi-kixatzat hartuta, **Kale Goiena** lekuizenaren gaiñian zertxobait irakuriz animau gara. Kale Barrixaren goiko partiar esaten xakon Kale Goiena, Naparreneko kantoittik gorako zatixari-edo. Eta izen honek XX. gizaldixaren hasierara arte irauin eben gutxi gorabehera. XIX. mendeko dokumentuetan behintzat sarri-ttan agerketan xaku. **Auzotxo** bera be, gaur eguneko Marzelino Zelaia kalia, izen horren barruan sartzen zan batzuetan.

Orain, dakizuenez, toponimo hori barriro ebalten hasiko gara. ostekalde horretan egittekotan diran etxe-multzuari izen hori ifiñi xaue-eta. Puntura arte, inguru horreittako kale-baserrixak soruak eta ortuak eukain hor. Ubao errekiaren bestekaldian. Errekia desbideratu eta gero, sail barrixak irabazi dira etxegintzarako. Argazkixa orain dala larogei urte ataratakua da. Etxaluzeko plazatxo aldetik.

Gomendionetik seguruenik. Izan be, 1923-1924an **Damian Lizaur** arkitektuak han egozenak bota eta Artzelustarren etxia jaso eben. Hartarako zabaldu zan zulo-hutsuniak gauza interesgarri asko erakusten dosku.

Egixa esateko, etzan orduan han edifizio askotzarik: eskumatara Arantzazu kaleko etxeoste bat ikusten dogu; atzerago bota barri dan Galdostarren etxia Portaleku/Auzabarrin; horren aurrian fabrika moduko bat, gu mutikuak giñala, Mondragueko Cerrajera-ra faten ziran langillien autobusa gordeteko ebalten zana; Arantzazurako kamiñuaren gaiñetik **Altzibar Azpikua** baserrixa, bost urte beranduago benediktinen monasterixo-kolegixua egitteko eraitsi euena; ezta Gomendioatarren txaletaren aztarnarik agiri orainddiok. Errekia, kanalak eta zubixa ikusi baiño gehixago somau egitten dira.

Bueno, eta jentiak, eguneroko jardunian, zela esango ete eben? **Kale Goiena** ala **Kale Goixena**? Antzeko beste kasu batzuetan, behintzat, bigarren formia ebal izan da Oñatin: adibidez, **Goixenetxe** eta **Sorogoixena** lekuizenak edota **goixeneko** eta **goixenian** berbak.

J. E.

Fotografixa Udal Artxiboko Lizaur-fondokua da